

Araua:

Arau juridikoek hirui ezaugarri betetzen dituzte:

- Agintzaileak dira: Hau da, zerbait agindu edo debekatzen dute.
- Behartzaileak dira: behartzen zaitu nahita nahiez. Hau da, agintzen edo debekatzen duen arau hori ez betetzekotan, indarrez edo koaktiboki betetzera behartuko zaitu horretarako dituen baliabideak erabiliz (zigorra, espetxea).
- Orokortzailea: Hau da, arau juridiko hori guztientzako dela aplikagarria.

Ez da, ados gauden ala ez. Ezta geuk, arau horien sorkuntzan parte hartu dugun ala ez. Soilik hiru ezaugarri hauek bete behar dituzte. Arau horrek, bere gain hartzen duen kolektibo osoa hartzen du bere baitan. Baina, geure arteko adostasun eta erabakiak ez dira juridiko gisan kontsideratzen eta ez dira ofizialak. Gainera, gainetik dauden arau juridikoak bete beharko dituzte.

Geure arteko arauak arau juridikoekiko kontrajarriak badira, erantzuleek zigorra jasoko dute ordainetan baina honetarako nahita nahiezkoa izango da frogatzea, demostratzea.

Agintzailea den heinean, agindu bezala eskubide batzuk eskaintzen ditu. Beraz, ekintza eremu bat eskaintzen digu. Hala, idatzita dago modu batean, baina gero gauzak nola gertatzen diren oso ezberdina denez, epaile etab. daude egoeraren interpretazioa egin ahal izateko eta erantzun bat emateko.

Produktuaren emaitza beti izango da bera baina emaitza honetara iristeko gertakariak beti izango dira ezberdinak (ondorioz, egoera horren azterketa eta interpretazioa egingo duen arduradun bat egotea nahita nahiezkoa izango da).

Legea:

Estatua (BOE, boletín oficial de estado) → Autonomia (EAE; BOPV / EJBO) → Probintziak (GAO, BAD, AAD) → (eskualdeak) → Herriak (

Kode zibilaren arabera

Pertsona Fisikoa → jaio eta 24 ordura eskubide eta betebeharrak juridiko batzuk ezartzen zaizkion giza itxurako gizakia.

Erregistro zibila → pertsona fisikoaren altak eta inskripzioak (gurasoan, jaiotzea, generoa..) eta heriotz / bajak gordetzen dituen erregistroa, udalen esku dagoena.

Kode zibilaren arabera pertsona fisikoak soilik inskribatu daitezke erregistro zibilean. 24 ordu horien baino lehenago hil ezker, pertsona hori existitu da eta ondorioz, bere ordezkariak eskuratuko ditu haur horri egotzirik eskubide eta betebeharrak.

Bajak emate ez diren kasuetan, eskubide horiek oraindik bizirik dira. Desagertze kasuetan, epeak daude; epea igarotzean, iraungi egiten da eta preiskribaturik geratzen da kasua.

Hiliko pertsona fisiko horrek zorrik izango balitu, herentzia bidez hurrengoari igaroko zaie.

Gaitasun juridikoa → eskubide eta betebeharrak batzuk ezartzen zaizkion pertsona fisiko nahiz juridikoa.

Ekintzarako gaitasuna → gaitasun juridikoa aurrera eramateko gaitasuna pertsona fisiko bakoitzaren egoera zibilaren arabera. Beraz, egoera zibilaren arabera, gaitasun juridikoa ezberdina izango da; baita ekintzarako gaitasuna ere.

Pertsona juridikoa → pertsona fisiko zein juridikoz osaturiko ente abstraktu bat da. Pertsona fisikoez osaturiko ente abstraktua. Ordezkaritza bidez funtzionatzen duena eta hor duena pertsona fisikoekin lotura. Miltaren arabera, leku ezberdinetan eman behar da erregistroa: merkatal erregistroan... Gainera, pertsona juridiko horren itxura aukeratu eta betekizunak bete behar dira. Ondoren, jada erregistratu ahalko gara.

Pertsona juridiko hori ezabatzeko erregistro horretan baja eman beharko da.

Pertsona juridiko horren ekintzarako gaitasuna aurrera eramateko NIF (nortasun agiria) erabiliko du.

Pertsona juridikoa erregistratzean gaitasun juridiko bat eskuratuko du baina ez ditu inoiz pertsona fisikoak eskuratuko duen gaitasun juridiko berbera izango.

Erantzukizun mugatua → pertsona juridikohorren ondasunekin soilik erantzuten denean arazoak dituen pertsona juridiko horrek. Zor hori nahita sortu dela frogatzen bada, mugagabe bilaka daiteke.

Erantzukizun mugagabea

Insolvente → ondasunik gabe geratu eta zorretan jarraitzen denean. Ondasunak eskuratu ahal, kentzen joango zaizkio pertsona fisiko horri.

gaiak:

Apirilak 9

emakume kirolariek gizonezkoen soldata berbera izan beharko lukete?

kirol errendimendua eta giza gorputzaren mugak, zuk ez al zenuke positibo emango?

haurdunaldia kirolari profesionaletan, taldetik botatzeko arrazoi?

consejo general del poder judicial

kontseilu

Botere legegilea

- Estatu mailan, bi ganbaren osatzen dute, kongresua eta senatua. Behe eta goi kamarak. bertako ordezkariak 300-400 artean dira. Kide hauek, hauteskundeetan hautatzen dira.
- Euskal Autonomia erkidegoan funtzioak ez dira aldatzen baina sortuko diren legeak ez dira estatu mailakoak izango, baizik eta autonomia erkidegoari dagozkionak. hori dela eta, autonomia erkidegoari dagozkion eskumenari dagozkion legeak soilik sortu ahalko da (hau da, lantzen duten gai multzoa). hala ere, mugatzat, estatuko arau juridikoak egongo dira, gai horri erreferentzia egiten diotenak. Muga hori konstituzioak ezartzen du.

Botere betearazlea

- Estatu mailan, gobernu eta ministroak osatzen du. Ministroak gizarteko arlo bakoitzeko buruak edo arduradunak dira. Jakintza arlo bakoitzeko kideek ere izango dute arau juridikoak sortzeko gaitasuna, baina soilik euren arloko gaietara dagozkienak. Arau juridiko batzuk sinatuko dituen arren, ez du gaitasunik atzera bota edota ezeztatzeko. Hori legegilearen zeregina da.

Botere judiziala

- Arau juridikoak betetzerakoan arazoak daudenean, botere judiziala ipiniko da martxan. Jurisdikzio edo gela guztiak epaitegietan egoten dira.

Egiturari dagokionez, estatuan, EAEn eta probintzietan, bakoitzean, hiru botereak bereizten dira; hau da, bakoitzak hiru botereen eskumena dauka.

Kasu mailaren arabera, estatua, EAE edota probintziak egiten dira kargu.

Funtzioari dagokionez, legegileak legeak sortzen ditu; betearazleak, legeak betetzea ziurtatzen du

legeak gobernuan sortzen dira eta botere betearazleak konkretatu egiten du soilik.

parlamentuan proposamen ematen da,

hasiera batean legeen proposamena botere betearazleak egiten du.

Kontzeptu orokorrak:

zuzenbidea

legeria

araua

legeri positiboa

izaera atzeragarria

indargetzea

Jurisdikzioa: jurisdikzio motaren arabera gela ezberdinak daude. kasu bakoitzaren arabera leku jakinera soilik jo dezaklegua; hau da, probintziako epaitegiak, estatu mailakoak edota autonomia erkidegoari dagokionean; bai jurisdikzioari dagokionean eta baita estamentuari dagokionean ere. Arazo horrek jorratzen duen gai multzoa eta epaitegi bakoitzak jorratzen duena (estatumentuak).

Gai multzo eta eskumenaren arabera, maila ezberdinetatik hasiko gara eta ibilbide ezberdina egingo dugu (bake epaitegietatik edo epaitegi nazionaletik...).

Audientzia nazionalak eta epaitegi konstituzionalak euren eskumen bereziak dituzte. gai multzo espezf. terrorismo gaiak, blanqueo de dinero eta narko trafikoko gaiak.

Nork erabakitzen du kasu baten maila? frogen eta egoeraren arabera.

Prokuradorea: beste abokatu bat, abokatuarekin lan egiten duena. Bere lana abokatuari laguntzea izango da, tramiteen inguruan, frogak, epeak... kudeaketa lana; eta abokatuaren lana berriz, bere bezeroaren defentsa burutzea.

Eskumena: mailaketaren kokalekua (probintzia, EAE, audientzia nazionala, bake epaitegia...)

Epaile naturala: Gai multzo bati dagozkion epaileak, eskumenak dituztenak. Guztietan daude epaile naturalak. Jurisdikzio kopuruaren arabera turnoko eta epaile natural kopuru zehatzak egongo dira. Zenbat eta jurisdikzio gehiago, orduan eta epaile multzo gehiago.

Turnoko epailea: Epaketa batean tokatzen zaiguna. Guztietan daude turnoko epaileak

Jurisprudentzia: turnoko epaileak ematen duen erantzuna, eta erantzun hori antzerako egoeretako gertakarietan aplikatu dezegunean. Behin kasua jurisdikzio batetara iristean. Honek zehaztuko du, kasu hori jurisdikzio horretakoa den ala ez (jurisdikzio zibila, penala, konstituzionala, audientzia nazionala, bake epaitegia).

Konstituzionalean: derechos fundamentales. (oinarrizko eskubideak)

Historia

jovellanos (gizona, kirol alorreko jurista). kirolaren egoera aztertzea eskatzen zaio. Bere ikerketa lanaren ondorioz bi liburukin sortzen ditu

- 1796: dikotomia: banaketa edo ikuspuntu aldaketa bat dagoela ikusten du kirol alorrean. Kirola praktikatzeko dutenak batetik eta ikusten dutenak bestetik. Lotura egiten du, garaiko mailaketa sozioekonomikoarekin. Jarduten dutenak, langilegoa eta ikuslegoa maila ekonomiko altuagoak. Praktikanteak beraz, lanetik eratorritako motrizitatea badute eta gainera JF gehiago egin beharra daukate praktikan, ikuslegoaren espektakulua sustatzeko. Honek, neke eta akidura gehiago eragiten dio eta hau arazo zen estatuarentzat (euren produktibitatea jaisten baitzen). Ikuslegoaren kasuan berriz, etzeukatenez akidurarik eta pasiboak zirenez, sedentarismo egoera batetan zeuden eta osasun arazoak sortzen hasi ziren (estatuarentzat arazo). Bere proposamena, dikotomia honekin haustea edota buelta ematea litzateke. ikusleak praktika gehiago eta praktikatzaileak gutxiago.
- 1809: irakaskuntza publikoaren modeloa. JF eta Karen praktikak dituen onurak aztertu zituen fisiko-psikologikoak eta bere proposamena irakaskuntzan sartzea izan zen. Irakaskuntza publikoaren modeloa aldatzea eskatu zuen beraz.

1883ko legea: HF irakasle eskolan eta bigarren hezkuntzako institutuetan (kongresuan erabakia): honek JFaren praktika areagotzea suposatzen duenez, egituraketa bat eskatzen du honek eta modu honetan, kirol elkarte pribatuak sortzen dira. Nahiz eta kirol elkarteek izaera pribatua duten, mistoak ere badira; azken batean gizartearen parte direlako hau da, funtzio publikoa betetzen dute.

Kirol elkarten sorrera (erak. jurid. pribatuak). bi legeen arabera funtzionatzen dute:

- Cc 1800 art.
- 1887ko elkarten legea

Bi arau juridiko hauen arabera funtzionatzen bazuten erakunde horiek, estatuari ez zitzaion axola edo etzuen exijitzen pertsona juridiko gisan erregistraturik egotea.

kirol erakundeen erregistroan. ministerio de actividad fisica y el deporte. estatu mailan kirol kudeaketaren ardura CSDk dauka (kirol kontseilu gorena, consejo superior de deportyes). Estatu mailako klubak erregistroa eta kirolaren kudeaketa hartuko du bere gain. profesionala den kasuan, estatuaren ardura da. bestela, bakoitzak bere autonomia erkidegoan eman beharko du izena. eusko jaurlaritzako kirol zuzendaritzak eta botyere betearazlean egongo dira (departamendu eta arloak).

garrantzi juridikoa izateko erakunde batek, erregistratu egin beharko da eta honetarako betekizunak bete beharko dituzte.

1941 kirol elkarte eta mugimendu gehiagosortzen dira eta urtarrilaren 25eko ED sortzen da (elkarterei erreferentzia eginez) eta 1887ko legea indargabetzen da. posible da errege dekretu batek lege bat indargabetzea. arautegiko mailaketaren bortxaketa ematen da. (oro har, goitik dagoenak indargabetzen du behakoa).

1941ean DND (delegacion nacional de deportes) funtzionatzen hasten da. estatuari kirolaren kudeaketa osoa monopolizatzeaz interesatzen zaionez, hau sortzen du. Ez da pertsona juridikoa

Garaiko politikaren ezaugarriak: falangearen menpeko estatu egoera

- kirolaren zuzendaritza politizatua
- kirola zuzenbide orokorretik at: ateratzen dute kirolaren kontrol osoa nahi dutelako eta gainontzeko zuzenbideekiko loturarekin hausten dute. Ondorioz, kirol alorreko arazoaren mailaren arabera, ezinezko zen, egun ez bezala, beste zuzenbide batek kudeatzea egoera hori. Hala, DNDk eramatan zuen edozein arazoren erantzuna, beste inolako estamenturen eskuhartzea ukatuz.
- kirol egitura mailatua
- kirol legeriaren sorrera

Hala, DNDk ez zituen errekurtsio administratiboak onartzen, ez eta bestelako errekurtsorik ere.

1945eko ekainaren 7ko ordena: DND estatutoak onartzen dira (erakunde horren barne funtzionamendu eta antolamendua nolako den zehazten duen idatzia da estatutoa) (beraz, sortu sortu 45an sortzen da pertsona juridikoa) nahiz eta 41ean hasi funtzionatzen. Egun, ezinezkoa da hau, debekaturik dago. Garai horretan posible zen estatuak, hau da, administrazioak sortu zuelako. Orduan izango da pertsona juridikoa.

1961 Elola Easo Legea (HFarena)

- kirola HF parte
- DND modelo jarraitu
- Kirola zuzenbide orokorretik at

Lege honek, kirola heziketa fisikaoren parte gisan integratzen du batetik. bestetik, ez du inolako aldaketarik ekartzen DND modeloarekiko. (piramidean: DND, Federazioak eta azkenik klubak).

Alderdi negatiboak:

- federazioen lizentzia aipatu gabe geratzen da: hau da, ez dute autonomia juridikorik izango. (estatuaren menpe). Egungoek autonomia juridikoa eta gaitasun juridikoa dute, ezberdina izango da izaeraren arabera baina autonomoki jarduten dute. Hau da, ez da esaten zenbaterainoko gaitasun eta ekintza juridikoa (ez izaera ez ezer; beraz, federazio izaera zalantzan ipintzen zen) zuten eta ez zeukaten autonomiarik
- federazioen izaera:
- DND monopolioa:

Alderdi positiboak:

- COEren independentzia formala (1937an sortu) ekartzen du: comite olimpico español. bere egitekoa: mugimendu olimpikoa aurrera eramatea (hau da kirolaren egituraren kudeaketa eta kirol erregistroaren kudeaketa. Bestetik, kirol instalakuntzak eraberritu eta eraikitzeko diru laguntzak ematea) betiere coik zainduko duelarik bere jarduna. Elola easo positibo bilakatzen denean, COE ere positibo bilakatuko da betiere COIren markoaren pean.
- INEFen sorrera: espezializazio baten beharra dagoelako
- Kirolaren finantzaketa egonkorta: gorputza hartzen hasten da eta nahiz eta DNDk monopolioa duen, estatuak ikusten du funtsak bideratu behar direla kirol mundura.
- kirol afizionatua bultzatu nahia: geroz eta jende gehiago formatua badago, geroz eta entrenatzaile gehiago eta geroz eta praktikatzaile afizionatu gehiago.

la carte europea del deporte para todos: nazioartean egikaritzen den printzipioen eskutitza, kirola guztietara zabaltzeko, mundu mailan.

trantsizioa estatuan: 1975ean ematen da. Francoren heriotzak erabateko aldaketa ekartzen du. honek, kirol trantsizioa ekartzen du aldi berean, kirol egoera erabat aldatuz:

Kirol trantsizioa:

- DND → CSD (1977): dndaren jarduna, kirol kontseilu gorenarena izatera oposatzen da. hau da, dndren lekua kirol kontseilu gorenak hartzen du. (piramidearen punta). pertsona juridiko pribatua, funtzio publikoa: izaera mistoa. pertsona juridiko pribatu autonomoa da.
- 1980 kultura fisikoaren eta kirolaren legea
 - kirola ord. juridiko orokorraren baitan kokatzen da.
 - legeak finkatzen dira
 - CSD
 - estatua: kultura fisikoa eta kirolaren sustatzailea
 - guztientzako kirola 1975

- HFren sorrera heziketa sisteman

1980koa iandargabetzen da eta 1990ekoa sartzen da indarrean eta orduan bilakatzen da positibo.

Beheko mailetan ere errekursoak jartzeko aukera dago.

Federazioen egitekoa: gainontzeko klubak bateratu eta antolatzea (gorputz bat ematea). Egiteko honetan klub hauei eta bertako kirolariei erreklamazio edo elegiteak ipintzeko aukera ematen dizkie. Hauek comité de disciplinan ipintzen dira (comité de competicion eta comite de apelacion; lehiaketabatzaordea eta apelazio batzaordea). euskadiko kirol justizia batzaordea. kiroleko epaitegi administratiboa. (autonomia erkidegoa eta estatuan)

hala, estatuan ere berbera dago eta arazo horren mailaren arabera estatu edo autonomi batzaordeetara jo behar dugun zehaztuko du. Zuzenean ezin da comite de apelacion era joan, banan banan joan behar da; dagokion estamentu horretara joanez, behetik gora.

Euskal Herrian nork egiten du lan hori? eusko jaurlaritzako kirol zuzendaritza (sail bakoitzaren buruan zuzendaritza dago) (konposatua da)

ministerioak betearazlearen barnean daude;

legeria betearazteko

zuzenbidea: osaketa: legeria aurreraeramateko mekanismoak; hau da, (arauak betetzeko, ez legea) epaitegiak, eta aurretiko bidea egite duten bide administratiboak (administrazioa, departamentuak, udala, liatila koa jeje)

kirol alorreko bide administratiboak amaitu ostean, bide judizial arruntera jo ahalko genuke. arazoaren arabera epaitegira joan beharko genuke: zuzenbide zibila, penala, lan alorrekoa...

epaitegiek praktikaren baitan dagoen ala ez erabaki beharko dute (ea kirol alorreko arazoa den, ez, agian..).

beraz, zuzenean joan ahalko genuke epaitegi batera, hau ordea momentuan dagoen arautegiak har lezake, txapelketaren antolatzaileak adib. lehiaketa batzaordeak adibidez. Ikerrek ulertzen badu, haratogoko arazoa izan dela eta kirol alortik kanpokoa, bide judizial arrunteko salaketa bat ipini lezake. batetik kirol alorreko bide administratiboa eta bestetik, bide judizial arrunta.

Teoria

Kirol Elkartegintza: 10/1990 eko estatuko kirol legearen arabera

Klubak

Federazioak

CSD kirol kontseilu gorena

Arau juridikoekin ematen den egituraketa bera agertzen da kirolean ere. probintzi mailan, autonomiara eta estatu mailara egitura bera da. nola? kirol elkartegintza, batetik, lehen mailako kirol elkartegintza eta bigarren mailakoa daude

1. mailakoa: kirol klubek sortuko dutena
2. mailakoan: kirol federazio eta liga profesionala (klubek klubek osatuko dutena, klubak elkartuko dira goragoko maila batean. Liga profesionalak duten lotura federazio eta klubekiko: klub batek liga profesionalean aritu dezake eta federazioa -liga profesionalak, federazio barnean egiten den aparteko sekzio bat da maila profesionalean, liga profesionala bere barrenean dago beraz; hau da, federazioaren barrenean. batzuetan ezinezko da hau, atletismoan. saskibaloia eta fitbolean ematen da hori soil: lehen mailako gizona koena-. Osa, federazioaren barneko sekzio bat da liga profesionala. Gainontzeko profesionalak, aparteko egituraketa profesional bat sortu beharra daukate, kirol legeriak eta kirol elkartegintzak ez dielako hori ahalbidetzen (soilik futbol eta saskibaloian ahalbidetzen du elkartegintzak eta kirol legeriak kirol profesionaltzat).

EAEEn eta gainontzeko autonomia erkidegoetan, beraz, bai daude talde profesional eta kirolari profesionalak; eta hauek klubak dira, lehen mailakoak baina kirol profesionala eskumen bezala, estatuarena da, hau da autonomia erkidego eta probintzi mailan talde eprofesionalen sorrera ahalbidetzen den arren, euren erregulazio eta antolaketa estatuaren eskumena denez, arazoaren aurrean, ezinezkoa da probintzi edo erkidego mailako federazioara joan, ez delako euren jurisdikziokoa; beraz, ez alor edo gaiari ez dagokiolako baizik eta deszentralizazio horretan ez dutelako eskumenik, eskumen hori estatuarena baita.

- Estatu mailako aplikazio eremuko elkartek

- estatu mailako klub en elkarteak
- sustapenerako erakundeak

1. mailako kirol elkartegintza kirol klubak

Pertsona fisiko edo juridikoz sorturiko erakunde pribatuez (funtzio publikoak bete nahiz eta pertsona juridiko pribatuak, izaera mixtoa) osatuak eta kirol modalitate bat edo gehiago zabaltzeko helburua dute. Bere bazkideek kirol modalitate hori / horiek praktikaturiko dituzte eta 'kirol lehiaketa' zein kirol jardueretan parte hartuko dute.

- Kirol klub elementala:
- Kirol klub oinarrizkoa:
- Kirol sozietate anonimoak:

Elementalek, oinarrizko eta anonimoetatik, helburu, sortze prozedura eta eurak diren pertsona juridikoaren arabera eman duten erregistro motaren arabera ezberdintzen dira.

Elementalak dira sortzeko errazanak: euren sortze betekizunak, besteena baina sinpleagoa delako eta erraztasun honek, kontrari beste ezaugarriak dituzte: helburua, kirol praktika, irakaskuntza, promozio eta hastapena izan arren, lehiaketa ez dute barnebiltzen; hau da, bertako bazkideek kirol klub elemental horren babesean ezingo dute lehiaketa ofizialetan parte hartu.

Sortze betekizunak: dokumentu pribatuak - sortzaile izenak (pax fisikoak) - sorrera nahia, helbur. izena - elkarte helbidea - arauen onaroen

Erregistroa: erakunde eta kirol erakunde en erregistroan (CSD)

Oinarrizkoak, elementalak dituen betekizun eta helburuez gain, lehiatzeko aukera ere badauka helburutzat.

Sortze betekizunak: Eskritura publikoa - sorrera nahia - estatutoa (barne antolaketa erregulatuko duen barne araudia) - 5 bazkide sortzaile gutxienez (pax fisiko edo jur). Pertsona fisiko zein juridikok sor dezakete (adib. administrazio bat federazio baten parte izaterakoan)

Erregistroa: erakunde eta kirol erakunde en erregistroan (CSD)

Zergatik CSDn: hitz egiten ari garelako estatuko kirol legearen baitan.

Eusko jaurlaritzako kirol sail eta kirol zuzendaritzan egin beharko genuke hemen sortuz gero.

Anonimoan, definizioz: estatu mailako lehiaketa profesionaletan parte hartzeko hatu beharreko derrigorrezko forma: hau da, kirol klub horrek ñabardura berezi batzuk hartu beharko dituzte, futbol eta saskibaloia adib. Baina badaude anonimoak ez diren batzuk ere (athletic, osasuna,...), zergatik edo nola da posible? legea sortu aurretik osatu zirelako; hau da, 80ko legean oinarrizkoek parte hartu zezaketen eta 90an hura indargabetzean, nahita nahiez anonimoak izan beharra zeukaten. Egoera honetan, saldo positiboa zuten oinarrizko klubei baimena edo aukera eman zitzaie oinarrizko gisan mantentzeko edota anonimo izatera pasatzeko (euren hautu gisan utziz). Saldo negatibo zutenek nahiz ordutik sorturiko gainontzeko lehiaketa klub guztiek izaera anonimoa izan beharra zeukaten nahita nahiez.

Helburua: izaera profesionaletako kirol lehiaketan parte hartzea eta kirol jardueren garapena eta sustapena

Sortze betekizunak: eskritura publikoa - sortzeko bi modu: erabateko eraldaketa bidez edo zati baten eraldaketa bidez. (sortze sistema aldibatekoa/jarraiekkoa). Hau da, erabateko eraldaketan, pertsona juridiko bat izatetik beste pertsona juridiko bat izatera eraldatzera (pertsona juridiko oinarrizko bat izatetik, anonimo bat izatera pasatzea zuzenean; ez dira berberak izango bada, anonimoak erregistro bikoitza dauka, kirol erakunde en eta merkatalean hau da, baltzu anonimoa da. Horregatik bikoitza da izen ematea eta horregatik sortze betekizunei dagokienez, baltzu betekizun eta kirol betekizunei erantzuk eta bien arauak bete beharko dituzte); eta zati baten eraldaketan berriz, demagun, kirol klub oinarrizkoak hainbat azpiatal dituela modalitate eta lehiaketa mailaren arabera (real sociedad adib.) zati bat soilik biakatuko litzateke anonimo; hau da, soilik futbola eta gainontzekoak (hokey-a etab.) ez. Hala, beraz sortu zen euskal autonomia erkidegoko kirol legearen arabera (88koa, estatuko 1980ko legean oinarritua eta beraz, anonimoak ez zudenekoa), baina 90ean eraldatzen baldin bada kirol sozietate anonimoan . Hori dela eta futboleko alorra aldatzen da eta gainontzekoek azpi sekzio bezala funtzionatzen jarraitzen dute.

Lehiaketa profesionaletan bestalde, estatuaren eskumena da eta beraz, eaeko kirol elkarte profesional batetaz dihardugunean, sortu daiteke baina estatuaren eskumenekoa izango da (jurisdikzioa):

Erregistroa: erakunde eta kirol erakunde en erregistroak (CSD) Merkatal erregistroan

Anonimoa lehiaketa profesionaletan parte dira

Sortze sistema aldi batekoa:

Sortze sistema jarraiekoa: Kapital anpliazioa exijitzen denean. Nola? Bazkideak sortuz bere akzioak saldu eta erosiz.

2. Mailako Kirol elkartegintza (kluben elkarketak)

Kirol federazioa. (estatua): pertsona juridikoak izango dira. (kluben osaketa delako)

Definizioz: pertsonalitate juridikoko erakunde pribatuak, bere ekintza eremua espainiar lurralde osora zabaltzen dutena, beti ere eskumena duten gaietan eta autonomia erkidegoko kirol federazioez, kirol klubez, kirolariez, teknikoez, epaile eta arbitroez, liga profesionalez (hau egitekotan()) eta kirol asustatzen, praktijatzten eta garapenean laguntzen duten besteako kolektiboek osatuak.

Sortze betekizunak: eskritura publikoa: (gutxienez) 54 klub egon beharko dira, (sei erkidegotan banatuta edo 9 erkidegoetako federazioak izan beharko dira. Estatu mailan kirol modalitate jakin horren zabalpena egon beharko da beraz. bestalde, estatutoak jasoko dituzte eta klubek %50ak pertenezia erakutsi beharko du hau da bere parte izango dela.

Erregistroa: erakunde eta kirol erakundeen erregistroan CSD

2 urtez izen ematea behin behinekoa izango da eta etorkizuna duela ikusten bada bi urte horien ostean, behin betiko egingo da.

Liga Profesionala:

Definizioz: estatu mailako eta izaera profesionaleko lehiaketa ofizialak sortutakoan soilik eta derrigorrez sorturiko klubek elkarrekin dira. Behar hori badago soilik sortuko dira.

Sortze betekizunak: estatu mailako eta izaera profesionaleko lehiaketa izatea. Beraz, bere sorrera derrigorrezkoa da beharra baldin badago edo euren presentzia baldin badago.

Erregistroa: erakunde eta kirol erakundeen erregistroan (CSD) eta federazioan bezala, bi urtez behin behineko eta ondoren behin betiko edo desagertuko litzateke.

Ez da posible bi federazio egotea maila berean (estatu mailan adib.) eta berbera gertatzen da liga profesionalei dagokionez. Modalitate berdinean federazioa eta liga profesionala egotea posible da.

Estatu mailako hainbat klub egon litezke ez dutenak parte hartzen liga profesionalean baina bai direnak federazio baten parte. Eta alrebes.

Estatu mailako aplikazio eremuko elkarrekin

- estatu mailako klubek elkarrekin (agrupacion deportiva)
 - estatuko federazioerik ez (15 klub - 3 autonomia erkidegotan . edo 3 erkidego Fed.
 - *hiru urtez bizirautea lortzen badute, federazio izateko aukera eskaitzen zaie. beraz, federazio aurretiko eskaloia dela esan liteke.
- **Sustapenerako erakundeak** (entes de promocion deportiva)
 - estatuko federazioa bai
 - estatuko txapelketetan parte hartu nahi ez
 - helburua: kirol sustapena eta helburu ludikoa
 - *kasu hauetan, nahiz eta oinarrizkoak izan batzuk, badauzkate estatuko federazioak baina ez dutenez parte hartu nahi lehiaketan, (hau da, aukera dute parte hartzeko lehiaketan baina ez daude derrigorruak) eta ondorioz, federazioaz kanpoko beste elkarte figura bat sortzen dute) hauek ere kirol erakundeen erregistroan emango dute izena.

<http://www.euskadi.eus/organismos-deportivos/web01-a2kirola/es/club.html>

Erkidego bateko legeak inoiz ezin du estatukoa kontraesan, berdina edo garatuagoa den legea izango da beti. EAEko kirol legean, kirol elkartegintzari dagokionez, azpimarratzen den ideia edo eskema; hau da, kirol elkarteen antolaketa eta egituraketa: lehenengo kirol klub motak azaltzen dira (estatuko berdinak direnak), lehenengo probintzia mailako ferazio bat izango lukete klubek, ondoren, eaekoa eta azkenik, estatukoa.

<http://www.csd.gob.es/csd/informacion/7consejyDGD/>

Estatutos con junta directiva:

Honako hauek nolakoak izan behar diren zehazten dute estatutuek:

- Arau orokorrak
- Bazkideak eta euren ezaugarriak
- Bildu beharreko dokumentuak: aktak, erregistro dokumentuak, balantzea...
- Klubaren antolaketak nolakoak izan behar duen: hau da, asanblea orokorra, presidentzia eta junta direktiboa (zuzendaritza)

Kirolarien profesionalizazioa

Kirol profesionalak, kirol legearen arabera, kirol elkartegintzako zein figuretan kokatzen dira? Sozietate anonimo eta oinarrizkoetan eta bigarren mailako elkartegintzan liga profesionaletan. (federazioetakoak profesionalak diren arren, beste izendegi bat erabiltzen da kirol legearen arabera)

Kirol legearen arabera, kirolari preofesionaltzat

1. Definizioa: Kirola libreki eta norberaren borondatez praktikatuko da; beraz, kirolari profesionalak, hau bete eta liga profesionaletan parte hartzen dutenak izango dira (futboleko lehen eta bigarren maila eta LIGA ACB mutilak.

Jurisdikzio sozialeko, lan zuzenbideari dagokion definizioari dagokionez:

2. Definizioa: Kirola J. nagusia - ogibidea. Bere jarduera nagusia eta ogibidea kirolaren praktika denean, eta bertatik, gutxienez lanbide arteko gutxienerako soldata eskuratzen dutenak-
3. Gutxienerako lanbide arteko gutxienerako soldata berdina da baina urtearen barrenean.

Lan zuzenbidea: jurisdikzio soziala

- Jarduera nagusia eta ogibidea
- Diru sarrera SMI egindakoan funtsa 735,90
-

L.E.D 2/2015ko langileen estatuto legearen testu eraberritua

- 2.1 art → izaera bereziko lan erlaziotzat kontuan izaten diren ogibide batzuk: d atalean: kirolari profesionalak. Beraz, hainbat ogibidetan jarduteak, badauzka berezitasun batzuk gainontzeko ogibideekiko eta ondorioz ebste erregulazio bat behar dute. Hala, arautegi berri bat egiten da ogibide hauek garatzeko eta bertan sartzen dira kirolari profesionalen lan bereziak
- 1006/1985 ED, ekainaren 26koa, kirolari profesionalen lan erlazioa (318/1981 ED indargabetu)

Hori dela eta, bigarrenak nahiz eta aldaketak jasan dituen ez da eraberritua izan.

Kirol modalitate bakoitzak bere lan hitzarmen propioa ateratzen du (urtez urte edo bi urtez behin) Lan estatutoak

Azken batean, estatuko kirol legeak bai esaten du zein mailatan, zein generotakoa edota zein modalitatetan aritu behar zaren baina ez da zehazten lan hitzarmenak nolako izan behar duen.

Errege dekretu honen babesean eta kirolari preofesionaltzat kontsideratzeko bete beharreko baldintzak:

- Definizioz: son deportistas profesionales quienes en virtud de una relacion establecida con carcter regular, se dediquen voluntariamente a la practica del deporte por cuenta y dentro del ambito de organizacion y direccion de un club o entidad deportiva a cambio de una retribucion

- Beraz, izaera erregulatua izan behar dute, borondatezkoa izan behar du, bestearen kontura jardun behar du eta bueltak soldata bat jasoko du (ordainketa)

Hala, Derrigorrezko hiru ezaugarri errege dekretu honen bidez erregulatua izateko:

- Menpekotasuna: Kirolaria kontratatua dagoen klubaren disziplinean egongo da. Hark esango dio, noiz entrenatu, nola, noiz jokatu, noiz ez...
- Bestearen kontura: Klubaren kontura egotea, arrisku enpresarialik ez du (hau da, kluba ondo ala gaizki joan arren, hau ez da baldintza izango edo honek ez du eragingo kirolariaren soldatan, kontratuan etab.) Kontratua izatea; lan kontratua. Hala ere, kluba gaizki joatekotan, batzutan ebste merkatal baltzuak isten diren bezala, klubak ere konkursoan sar litezke.
- Ordainketa: Modu edo izaera erregular batekin
 - Soldata (jarraitasuna, kopuru errepikakorra, lanarekin bat): jarraitasun batekin datorrena: epe berdinetan ordaindua eta kopurua errepikatzen dena eta lanarekin bat datorrena; eginiko lanarengatik jasotzen dena
 - Konpentsazioa (ordainketa → aldiunekoa / irregularra): soldatetik kanpo geratzen dena; aldizkakoa izan daiteke eta irregularra izaten da. (primak...)

Guzti hau Lan Zuzenbideak babestu egingo du. Zuzenbide zibila izanik bere jurisdikzioa (zerbitzuen alokatzea) hau da, erregulatuko duena.

Zergatik? pertsona pertsonaren arteko erlaziotzat hartzen delako eta ez lan erlaziotzat; hori dela eta, lan zuzenbideak ez baina zuzenbide zibilak erregulatzen du.

Arau juridiko, liskarren aurrean hartu beharreko irtenbideak eta abr. erregulatzen ditu lan zuzenbideak (lan arloan espezializaturik dago eta lan bideko arazoaren bidez zuzenak soilik erregulatzen ditu)

Ogasunean, zergetan eta gizarte segurantzarako aportazioan. Alta ematen digute gizarte segurantzian eta aldi berean seguro bat eskuratzen dugu; zerbait gertatu ezkeror berak du gurekiko ardura. Hala, kopuru horren ehuneko bat enpresaren kargu geratuko da (hau da, ordaindu behar du soldata eskaitzeagatik gizarte segurantzian, deklarazioa egiterakoan).

Beste konplementuak daude: hiru urtekoak, bost urtekoak, nocturnidad?... (hauek soldatetik kanpo geratzen dira)

L.E.D 2/2015 → Langileen estatutoak

↓

1006/1985 E.D. → Arloko Lan Hitzarmena (goikoan oinarritua) → klubekoa / modalitatekoa

↓

Lurraldeko, enpresako hitzarmen gehiago... (euskadikoa, lurraldekoa ez dago -ez da autonomiaren jurisdikzioa kirolari profesionalen arloan), hala ere kontuz, posible da klub profesionalen sorrera autonomia bakoitzean. → Modalitate Bakoitzeko Lan hitzarmen Kolektiboa

*Geroz eta beherago, orduan eta baldintza hobeak izango ditu hitzarmen horrek; langile estatutoek minimoak markatzen dituzte.

Kirolari profesional eta gainontzeko langileen arteko ezberdintasunak

- Lanerako fasea
 - a) Lan merkatuan bitartekotza
 - Lan: ETT/INEM: langile arrunteen kontratuen eta enpresariaren arteko bitartekari lanak burutzen dituzte.
ETT* bitartekari lana egiten dute enpresaria eta langilearen artean, lan kontratua egiteko.
Zein da ETT eta INEM en arteko ezberdintasuna? ETT bati deitzea onuragarriagoa da enpresa baten kasuan; ett batek dena egiten du; hau da, langilearen alta, baja eta kudeaketa hori guztia egiteaz ETTa arduratzen da; jarri beharreko materialaz ere bera arduratzen da, esaterako.
Enpresaren ardura da ETT hori ona dela begiratzeaz. ZXerbait gertatzen bada, ETT-ak langileengana joko du zuzenean beraz, langileen ardura ere izango da material eta guzti hori ondo eta egokia dela bermatzez. INEM-en kasuan berriz, lan poltsa bat besterik ez da; hau da, izena emanten duzu eta INEM-ek lan poltsa bat sortuko du langileen zerrendarekin eta ondoren, enpresek lan poltsa hori hartu eta langileen hautaketa burutuko dute. (kolegiaturiko pertsonen zerrendak dira). INEM-etik deitzen dizutenean, poltsan zaudenean, ezin duzu ezezkia esan, ez

baduzu lanik gabe geratu nahi edota lan poltsatik kanpo geratu nahi. ETT-a berriz, lan poltsa espezializatua da; ETTak kontratatzen zaitu eta ETTak berak egiten du hautaketa prozesua eta berak erabakitzen du enpresa batetara bidali ala beste batera.

- Prof. Kluben arteko akordioak: profesionalen kasuan ETT horiek ez dira existitzen eta lan akordio horien bitartekaritza lana klubun artean burutzen da.

- b) Kontratua

- Ordainketa

- Langile arrunten kasuan: soldata (+ primak)
- Prof.: soldata + primak

*Primak: eginiko salmenten etab.en arabera ematen dioten ordainsaria, geroz eta gehiago saldu, orduan eta prima handiagoa. Egun, oso ohikoa da eta hau soldatatik kanpo geratzen da, ez ahaztu.

- Iraupena

- Lang. denbora markatu gabe: lan arrunt batean denbora markatu gabe dator orokorrean
- Prof. derrigorrezko epea. Kirolari profesioaletan, beti denbora muga zehazten da nahiz eta gero luzatzen den edo ez.

- Proba epea:

- Lang. normalean 3 hilabete edo >. Hau da, froga epea markatu daiteke langile horren jarduna behatzeko eta honen arabera kanporatzeko ala ez. Ez da derrigorrezkoa nahiz eta jarri daitekeen.
- Prof. bakarrik lehiaketa ofiziala hasi ondorengo kontratuetarako (gehienez 15 egun)

- Lan erlazioaren garapena

- a) betebeharra

- lang. lanpostuarekin loturiko jarduna. zein zeregin aurrera eraman beharko dituen zehaztu daiteke etorkizunean kontuak hartu ahal izateko langileari
- Prof. kirol prestakuntzaren garapena norberaren baldintza fisiko teknikoan arabera. elkartearren esanetan jarritik → zailtasuna kontratua ez betetzaren ondorioz ipin lezaketean isuna. Hau da, ez baduzu baldintza fisiko teknikoa betetzen, kontratua ez betetzeaz egotzi lezaketete eta isuna ipini. Hemen zailtasun handiak daude, izan ere, kirolari horren errendimendua gutxitzea klubaren funtzionamendu txarraren edo kirolariaren errua izan bai daiteke. Hori dela eta, kanporatu baino lehenago, soldata jaitsi, isuna ipini etab. egin ohi dute enpresek. Adib, igerilari bat bada eta marka konkretu bat badu oso ebidentea da bere errendimendua; errendimendu jaitziera borondatezkoa izan den ala ez kuantifika dezakezu (marka duzulako) baina ezin duzu zehaztu guztiz jaitziera horren zergaitiak zein diren eta nor den horren erantzulea, kirolaria ala kluba bera.

- b) Eskubideak

- Lang arrunt. irudi eskubide eza: hau da,
- Profesionalen kasuan → langilearen jardunagatik ORDAINKETA eta SOLDATA ('derechos de imagen' edo irudi eskubidea → soldata ??? → gizarte segurantza, langabezia, jubilazioa). Hau da, oraindik ez dago garbi ea irudi eskubidea kobratu beharko luketen profesionalen bai ala ez (soldataren barnean satu ala ez) kasu batzuetan ala kontsideratu da eta beste batzuetan ez; bada,
 - Herritarren eskubideak (sarritan elkarrekin ez dutena errespetatzen)
 - Intimitaterako eskubidea
 - adierazpen librerako eskubidea
 - berdintasun eskubidea
 - irudi eskubidea
 - 'ocupacion efectiva' → kirolean berezia (kontratatu zaituzten momentuan zure zereginak non egingo diren markatzen dute kirolaren kasuan. eskatzen badute, beste nonbaitera joan behar duzula, prima berezi bat ordainduko dizute (dirua emanaz, gasteiztik donostirako dagoen kilometrajearen arabera; kontsideratzen delako zure lana hemen dagoela) Hau soilik kirolaren kasuan ematen da. Oso berezia da, ez dagoelako lekutze konkretu bat kirolaren arloan; bada, markatuta baitago langileek zenbateko deskantsua duten, eta kontzentrazio edo txapelketetako bideiek ez dutelako errespetatzen kirolari profesional horien deskantsu denborak.
 - Europar Batasuneko langileen joan etorri askeko eskubidea (libre circulacion de trabajadores): (caso bosman) aukera dago europar batasuneko edo kanpoko edozein kirolari hartzeko

- c) jardunaldia, atsedena eta oporraldiak
 - lang. langileen estatutoak arautu. Hitzarmena
 - Prof. EDak arautegi arrunteko langileen guxtiengoan antzeakoak. Helb. atsedena bermatzea → arazoriak ez (lagunarteko torneoak..)
 - jardunaldia (hitzarmen edo kontratuak zehaztu → ez→ lan arautegiak gehiegizko muga zehaztu
 - Atsedena, oporraldia (ED → 15 egun / aste // 30 egun naturaleko oporraldia)
- d) Denbora baterako lagapena
